


ALTZA BHI BATXI 2A



AZKEN
HAMARKADETAKO
EUSKAL IDAZLE
GARRANTZITSU BATZUK



AURKIBIDEA

• TESTUINGURUA	3
◦ TESTUINGURU HISTORIKOA	4
▪ HEGO EUSKAL HERRIA	4
▪ IPAR EUSKAL HERRIA	7
◦ TESTUINGURU LITERARIOA	9
• IDAZLE GARRANTZITSUAK	13
◦ ARANTXA URRETABIZKAIA	14
▪ IBILBIDE LITERARIOA	15
▪ NIREETAKOAK DIRA	17
◦ ANJEL LERTXUNDI	20
▪ IBILBIDE LITERARIOA	22
▪ HAMASEIGARRENEAN, AIDANEZ	24
◦ JUAN MARI IRIGOIEN	27
▪ IBILBIDE LITERARIOA	29
▪ AMODIOZKO GUTUNA	32
◦ BERNARDO ATXAGA	34
▪ IBILBIDE LITERARIOA	36
▪ OBABAKOAK	39
◦ JOSEBA SARRIONANDIA	44
▪ IBILBIDE LITERARIOA	46
▪ LAU BOST SEI HARRESI	48



TESTUINGURUA



TESTUINGURU HISTORIKOA

Hego Euskal Herria

Frankismoak (1937-1975) errepresio kulturala, ekonomikoa eta politikoa ekarri zuen Hego Euskal Herrira. Kulturean, adibidez, administrazioan, komunikabideetan, irakaskuntzan eta esparru publikoan euskara erabiltzea debekatu zen, eta gaztelania hizkuntza bakar gisa ezarri zen. Ekonomian, euskal nazionalismoarekin lotutako enpresak eta pertsonen jabetzak konfiskatu ziren, erregimenaren hurbileko enpresei lagunduz eta euskal autonomia ekonomikoa mugatuz. Azkenik, politikan, Frankok Bizkaiko eta Gipuzkoako Ekonomia Itunak indargabetu zituen ("probintzia traidoreak" deitu zien), eta Araban eta Nafarroan, berriz, mantendu zituen, kolpeari emandako babesagatik. Gainera, abertzaleen eta errepublikarren zati esanguratsu bat espetxeratu zituzten edo erbesteratu behar izan zuten. Hala ere, errepresioak erresistentziaren berrantolaketa ekarri zuen, oposizio baketsutik 50-60ko hamarkadetan borroka armatura eboluzionatuz.



1975ko azaroaren 20an, Frankoren heriotzak 40 urteko diktadurari amaiera eman zion. Gertaera honek, ondorio nabarmenak izan zituen politikan, ekonomian zein kulturari, Hego Euskal Herriko historiaren garai bat itxi eta berri bat ireki baitzuen.

Politikari dagokionez, Demokraziarako Trantsizioa 1975ean hasi zen eta garai honetan, sistema diktatorial autoritario eta zentralizatu batetik sistema demokratiko eta erregimen autonomiko batera igaro zen. Euskal Herriko Trantsizioa Espainiako gainerako lurraldeetatik bereizi zen. Hori gertatu zen prozesu konplexu eta nahasi bat izan zelako, ezegonkortasunak, ETAren indarkeriak, preso politikoen amnistiaren aldeko borrokak eta autogobernuaren bilaketak bultzatuta. Are gehiago, koalizio antifaxistak eta demokraziara itzultzeko eremua prestatu ziren. Dena dela, garai hori ETA talde terroristaren etengabeko jarduerak markatu zuen, eta demokrazian zehar atentatuekin jarraitu zuen, tentsio politiko eta sozial handia sortuz, tokiko eta Espainiako Estatuako botereei aurre eginez. Trantsizioarekin batera, eskualdeak birmoldaketa industrial larria jasan zuen, langabeziaren hazkundearekin eta aldaketa demografiko esanguratsuekin industrializazio masiboaren ondorioz.

Bestalde, 1978ko Konstituzioa onartu ondoren, Autonomia Estatutua negoziatu zen, egungo autogobernurako funtsezkoa dena. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua

(Gernikako Estatutua), 1979an onetsi zen. Estatutuaren bitartez, autogobernu bat ezarri zen Araban, Bizkaian zein Gipuzkoan, eta Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza bezalako erakundeak sortu eta frankismo garaian galdutako Ekonomia Itunak berreskuratu ziren. Azken hauek industria-krisi sakona gainditzen lagundu zuten. Trantsizioa 1980an amaitu zen Euskal Autonomia Erkidegoan Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeekin, EAJk irabazi zituenak, aro demokratikoko lehen Eusko Jaurlaritza eratuz. Geroago, 1982an, Gernikako Estatutuak ahalbidetzen zuen polizia autonomoa sortu zen, hau da, Ertzaintza.



80ko hamarkadatik aurrera gaur egunera arte, euskal politikagintzan euskal nazionalismoa, eta batez ere EAJ, izan da nagusi, gobernu nazionalistak eta

konstituzionalistak txandakatuz. Gainera, ETAk 2011n jarduera behin betiko utzi ondoren normalizazio politikorantz eboluzionatu du Euskal Autonomia Erkidegoak. Izan ere, azken hamarkada hauetan, euskal gizartea modernizaziorantz aldatu da, nortasun-harrotasun handia eta Espainian bakarra den autogobernu-sistema mantenduz.

Kultura dela eta, esan beharra dago aldaketa erradikala bizi izan zela frankismoaren ostean, errepresio eta klandestinitatetik identitate eztanda batera pasatuz. Izan

ere, frankismo garaian euskara jazarria izan zen eta euskal kultura, aldiz, mugatua. Hala eta guztiz ere, frankismo berantiarrean (60-70 urteetan) euskaraz irakasteko ikastolak sortu ziren, baita 1968an Euskara Batua sortu zen ere, hizkuntza modernizatzeke eta normalizatzeke.



Frankismoaren ondoren, ordea, demokraziak eta Gernikako Autonomia Estatutuak euskararen ofizialtasuna eta kultur politika propioak garatzea ahalbidetu zuten, baita hezkuntza sisteman euskararen irakaskuntza bultzatzea eta euskarazko komunikabideak sortzea ere, prentsa, irratia eta telebista, adibidez. Horrek euskal kultura erresistentziatzeko kultura batetik instituzionalizatutako eta hedatzen ari den kultura batera igarotzea ekarri zuen, tradizioaren eta modernitatearen arteko oreka bilatuz.

Ipar Euskal Herria

1975. urteaz geroztik, Ipar Euskal Herriak Frantziaren barruan nortasun politiko eta aitortpen kultural handiagoa lortu zuen. 1975ean Franko hil ondoren, Ipar Euskal Herria ETAko militanteen babesleku bihurtu zen, eta horrek areagotu egin zituen Frantziako poliziaren presentzia eta tentsio soziala. 80ko eta 90eko hamarkadetan, euskararen eta euskal

kulturaren onarpenaren aldeko mugimendu kultural eta politiko indartsu bat sortu zen, frantses zentralismo historikotik bereiziz.

Ipar Euskal Herrian abertzaletasuna moderatua izan da nagusiki eta autonomia administratiboa lortzera bideratua eta Pirinio Atlantikoetatik bereizitako "Euskal Departamendua" sortzeko eskaerak izan dira. 2017an, Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerak mugarri historiko bat izan zuen, hiru probintziak bildu baitzituen lurraldean, etxebizitzan eta kulturen eskumenak dituen administrazio-egitura bakar batean. Azkenaldian, Ipar Euskal Herriak garapen ekonomikoan lan egin du, turismoan eta nekazaritzan, batez ere.



TESTUINGURU LITERARIOA


Euskarazko literaturak 1975etik gaur egunera izan duen bilakaera oso garrantzitsua da, hizkuntza, gaiak eta estiloak aldatuz eta modernizatuz. 1975eko azaroaren 20an Francisco Franko hil ondoren, euskarazko literatura oso bestelako fase batean sartu zen. Frankismoaren garaian, euskara debekatua zegoen administrazioan, hezkuntzan eta komunikabideetan, eta askotan literatura klandestinoia izan zen. Egoera horrek baldintzatu egin zituen idazleen aukerak, landu beharreko gaiak eta irakurle publikoak. Era berean, ekonomiak ere eragina izan zuen: argitaletxeak oso mugatuta zeuden eta literatura merkatuak ez ziren zabalduta. Hego eta Ipar Euskal Herrian, egoera desberdina zen: Hegoaldean frankismoaren eragina handiagoa izan zen, eta Iparraldean, Frantziaren menpe, sustapena moderatuagoa izan bazen ere, euren sarea eta proiektuak indartu ziren.

Lehen urte hauetan, euskarazko literatura tradiziozko gaietan oinarritzen jarraitu zuen, baina pixkanaka identitatea, memoria historikoa eta pertsonaien psikologia lantzen hasi ziren. Bernardo Atxaga eta Arantxa Urretabizkaia izan ziren garai horretako autore nagusiak, eta euren lanetan nobela modernoak eta poesia esperimentalak nabarmentzen ziren. Irakurle nagusiak ikastoletako gazteak eta literatur modernoari interesa zuten helduak izan ziren. Ekonomia oraindik krisi-egoeran zegoenez, argitalpenak oso gutxi ziren, baina hasieran ere literatura modernoaren oinarriak finkatzen hasi ziren.

1980ko hamarkadan, euskarazko literatura moderno eta anitza bihurtu zen. Nobela modernoak, saiakera eta poesia esperimentalak nagusitu ziren, eta idazleek teknika berriak erabiltzeari ekin zioten, hala nola monologo interiorra, narratzaile anitza eta flashback-ak. Ramon Saizarbitoria eta Anjel Lertxundi izan ziren garai honetako izen garrantzitsuenak, eta euren testuak pertsonaien psikologia, gatazka sozialak eta identitatearen hausnarketak lantzen zituen. Testuinguru historikoak eta ekonomikoak eragina izan zuen

gaietan eta argitalpen kopuruan: pixkanaka, literatura modernoaren hedapena eta irakurle publikoaren zabalkundea hasi ziren.

1990eko hamarkadan, euskarazko literatura publiko zabalera iritsi zen. Haur eta gazte literatura nabarmendu zen, eta nobela modernoak indartu ziren. Atxaga eta Kirmen Uribe izan ziren garai horretako autore nagusiak, eta euren testuek pertsonaien psikologia, gatazka sozialak eta memoria historikoa modu sakonagoan jorratzen zuten. Irakurleak gazte eta helduak izan ziren, baita euskara ikasten zuten ikasleak ere. Ekonomiak hobera egin zuenez, argitaletxe gehiago sortu ziren eta literatura hedatuagoa izan zen.



Ehun metro -
Ramon
saizarbitoria

Nobela saiakera

2000ko hamarkadan, euskarazko literatura moderno eta esperimentalak nazioartean zabaltzen hasi zen. Genero anitzak landu ziren: nobela, poesia, saiakera eta haur eta gazte literatura. Esperimentazio modernoak eta gatazka sozialen azterketak nagusitu ziren, eta argitalpenak sarean eta nazioartean zabaltzen hasi ziren. Kirmen Uribe, Atxaga eta emakume idazle berriak izan ziren garai honetako autore nagusiak, eta irakurleak publikoa zabalagoa izan zen, ikasle eta helduen artean, baita nazioarteko irakurle batzuk ere.



Soinujolearen semea -
Bernardo Atxaga
Obra modernoa

2010eko hamarkadatik aurrera, literatura digitalak eta sarean argitaratzeak indarra hartu zuen. Gai berriak lantzen hasi ziren, feminismoa, migrazioa, globalizazioa eta teknologia barne. Nobela psikologikoa, poesia simbolikoa eta narratiba

esperimentalak nagusitu ziren. Kirmen Uribe, gazte eta emakume autore berriak eta Atxaga izan ziren garai honetako idazle nagusiak, eta irakurleak gazteak, ikasleak, publiko digitala eta nazioartekoa izan ziren.

Gaur egun, euskarazko literatura guztiz normalizatuta dago, eta nobela, poesia, saiakera eta haur eta gazte literatura moderno eta anitza eskaintzen ditu. Esperimentazio modernoarekin, flashback-ak eta narratzaile anitz erabilia, autore nagusiak Kirmen Uribe, Atxaga eta gazte eta emakume autore berriak dira. Irakurleak gazteak, ikasleak, euskal gizartea eta publiko nazioartekoa dira. Testuinguru historiko, ekonomiko eta kulturalak idazleek aukerak, gaiak eta irakurle publikoak baldintzatu dituzte, eta euskarazko literaturaren garapena eta nortasuna ulertzeko ezinbestekoa da.

1975etik gaur egunera, euskarazko literatura trantsizio, modernizazio eta aniztasun sakonean garatu da. Testuinguru literarioak hizkuntza (Euskara Batua), autoreak, gaiak, estiloak, irakurleak eta garai historiko-ekonomikoak hartzen ditu. Frankismoaren ondoko mugak, ekonomiaren aldaketak eta Hego eta Ipar Euskal Herriko testuinguru desberdinak idazleek aukerak, gaiak eta irakurle publikoak eragin dituzte. Literatura bizirik dago eta etengabe garatzen ari da, euskal gizartea eta kultura erakutsiz.



IDAZLE GARRANTZITSUAK



AAk egindako irudia

ARANTXA URRETABIZKAIA

(DONOSTIA, GIPUZKOA, 1947)



Arantxa Urretabizkaia idazle eta kazetari donostiarra da. Idazlea Loiolan 1947. urtean jaio zen, eta txikia zenean Egia auzora bizitzera joan zen. Arantxak 13 urte zituenean idazkaritza ikasten hasi zen, eta hiru urte eta gero, 16 urterekin erizaintza ikasketei ekin zien bulego batean lan egiten ari zen bitartean. Gerora, 1975an, lan egiten jarraitzen zuen bitartean, Historia ikasketak bukatu zituen Bartzelonan.

Historia ikasketak bukatu eta bi urte beranduago, 1977an munduan zehar bidaiatzen kazetari jardun zuen. Arantxa Urretabizkaia hasieran “Egin” aldizkarian aritu zen eta gerora “ETB”, “Deia” eta “El diario vasco”-n, besteak beste.



IBILBIDE LITERARIOA

Ibilbide literarioari dagokiolarik, Arantxa Urretabizkaiak 1970. urtean Afrika iraultzaren alde itzulpena argitaratu zuen eta Saizarbitoria eta Sarasolarekin batera *Mendebaldeko ekonomiaren historia* idatzi zuen. Urtebete igaro ostean, *Sozialismoaren frogantzak* obra itzuli zuen.

Dena den, itzulpenak ez ezik, Arantxa Urretabizkaiak bere obra propioak ere jorratu zituen. Hasieran poesian lan egiten hasi zen doinu intimisa batekin. Izan ere 1972. urtean *San Pedro bezperaren ondokoak* deituriko poema luzea argitaratu zuen. Olerki honek nerabezaroaren amaierarekin erlazionatutako sentimenduen inguruan hitz egiten du. Bere lehenengo olerkia argitaratu eta 10 urteetara, Urretabizkaiak idatzitako *Maitasunaren magalean* olerki-liburua saritu zuten. Emakumeak idatzitako olerkiak sekulako garrantzia izan zuten. Izan ere, Koldo Izagirrek idatzitako *XX. Mendeko poesia kaierak* obran Arantxaren poema batzuk agertzen dira. Honako sarrera hau egin zuen Izagirrek:

"Baina, zorionez, gizon artean emakume itxura handiagoa izan behar zuen emakume hark jarrera guztiz desberdinean idazten zituen bere poemak, defentsa artifizialik gabe, bere talentua libreki eta soseguz isuriz. Izan ere, berezitasun hori da, naturaltasun hori, Urretabizkaiaren poesiaren baliorik onenetako bat."

Arantxa Urreabizkaiak olerkigintzan arrakasta izan bazuen ere, bere ibilbide literarioko obra nagusia 1979an argitaratu zuen: *Zergatik Panpox?* Obra honetan, senarrak protagonista abandonatzen du eta protagonistak Panpox deituriko haur bat du. Hortaz, istorioak protagonistaren egunerokotasuna kontatzen du, haren gogoetak eta elkarrizketa intimoak erakutsiz.

Jon Kortazaren esanetan, Arantxa Urreabizkaiaren obra nagusiak berritasun anitz zituen: protagonista emakumea da, barrokismoa aplikatzen da emakume baten bizitzan, eta eleberrian erregistro eta tonu ezberdinak nahasten dira (tonu sentikorra, poetikoa, egunerokotasunekoa...). Horrez gain, eleberrian *course of conscience* deitutako teknika erabiltzen da pertsonaiaren garapena adierazteko.



Nireetakoak dira

Nireetakoak dira
behiak jetzi ondoren
esnerik ez dutenak
lurra landu ondoren
non etzanik ez dutenak
besteek hustuko dituzten botilak
betetzen dituztenak
maitasunezko kartak
eskribitzen ez dakitenak
maitasunezko kartak
errezibitzen ez dituztenak
kantatzen ez dakitenak
kantatzen ez dutenak
ispiluaren aurrean
beren irudia
beren begirada
ezagutzen ez dutenak
zeruaren pisua sentitzen dutenak
arratsaldero
gauero
Donosti-zaharrear
bizitzeari kolore arrosa
edo gorria
ematen saiatzen direnak
gauero
etxe parean
azkeneko oztopoaren aurrean
etxera joateko indarririk ez dutenak
etxera igo baino lehen
portalean
txapela zuzenduz
aurpegian irribarre bat konstruitzen dutenak
zotiniz bizi direnak
zotiniz hilko direnak
komunean arrastoan uzten dituztenak
badakizu
gizonak dauden lekuetan
gauero komunetan
pixaren arrasto lotsagarriak
lehortzen dituztenak
baina

ni komun askotan izan naiz
eta beti begiratzen dut lurrera
lehorra egoten da
tabernetakoa ezik
niretakoak dira
gazterik zimurtzen
zimeltzen direnak
bere burua maite ez dutenak
bere burua gorrotatzen dutenak
negar egiten dakitenak
nireetakoak dira
ezin ditut maite
eta maite ditut
baina ez dute ene maitasun desesperantzatu
salbaziorik aurkitzen
maldabeheraren beldur
atzaparrez zulatzen naute
eta
erorian
haizea eta euria lagun
ene gorputza
malkoen ildoez markatzen dute
baina nik badakit
ezin dezaketela lagun
ene begirada bera
ene esku luzatua
ene gorputz eskainia
beherantz bultzatzen dituen
pisua dela
katea
zeren
haien garrasietan
haien kontraesanetan
haien ahuleziaren indarrean
haien borroka beti galduen
eta beti berrasien beharrean
aurkitzen baitut
nik
honenbeste gorrotatzen dudan neure irudia

Arantxa Urretabizkaiak idatzitako olerki honek gizartearen alde ilunena eta pertsonen barne sufrimendua erakusten ditu. Olerkiaren hasieran, “nireetakoak dira” esaldia agertzen da. Honekin, idazleak adierazten du identifikatuta sentitzen dela deskribatzen dituen pertsonekin.

Lehenengo zatian, egoera gogorrean dauden pertsonak aurkezten ditu Arantxak: “behiak jetzi ondoren esnerik ez dutenak”, “lurra landu ondoren non etzanik ez dutenak”, besteak beste. Adibide hauek erakusten dute lan handia egiten duten arren, ez dutela emaitzarik lortzen, eta horrek frustrazioa adierazten du. Berdina gertatzen da, adibidez, honako bi esaldi hauekin: “maitasunezko kartak eskribitzen ez dakitenak” eta “errezibitzen ez dituztenak”, non agertzen diren pertsona hauek maitasuna emateko eta jasotzeko zailtasunak dituzten.

Jarraian, autoestimua falta agertzen da: “ispiluaren aurrean beren irudia ezagutzen ez dutenak”. Honek adierazten du pertsona hauek ez dutela haien burua errespetatzen edo ezagutzen. Era berean, “zeruaren pisua sentitzen dutenak” esaldiak bizitzaren pisu handia sinbolizatzen du.

Beste zati batean, eguneroko bizitzaren gogortasuna azaltzen da, adibidez: “etxera joateko indarririk ez dutenak” edo “aurpegian irribarre bat konstruitzen dutenak”. Hemen ikusten da pertsona hauek nekatuta daudela eta batzuetan ondo daudela erakusten dutela, barrutik gaizki egon arren.

Olerkiaren erdialdean, Arantxak kontraesan bat egiten du: “ezin ditut maite eta maite ditut”. Honek enpatia sentitzen duela erakusten du, baina ezin duela pertsona horien egoera aldatu eta horrek mina ematen dio.

Amaieran, ideia nagusia agertzen da “aurkitzen baitut nik horrenbeste gorrotatzen dudan irudia”. Zati honekin, Urretabizkaiak erakutsi nahi digu aurreko pertsona guztiekin identifikatzen dela eta haiengan bere burua islatuta ikusten duela.

Laburbilduz, olerki honek erakusten du pertsona batzuen sufrimendua oso sakona dela. Honako hau esaldi batzuetan ikusi daiteke, hala nola, “malkoen ildoez markatzen dute” esaldian.



ANJEL LERTXUNDI

(ORIO, GIPUZKOA, 1948)



Anjel Lertxundi Orion jaio zen 1948an, Andu baserrian, eta handik dator bere ezizena. Donostiako Mintegian ikasi zuen, eta, ondoren, Donostiako Irakasletza titulua eta Erroma eta Valentziaren arteko Filosofia eta Letretako lizentzia lortu zituen. Txikitatik Zarautzen bizi izan da, Salvatore Mitxelena ikastolako irakasle gisa aritu zen, eta lau urtez zuzendari izatera iritsi zen.

Aurrerago, Euskal Literaturako eta Literatura Unibertsaleko eskolak eman zituen Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskolan.

Gaur egungo euskal literaturaren egile garrantzitsuenetako bat dela uste da, batez ere idatzi dituen lan ugariengatik. Eleberria, ipuinak, saiakera, itzulpena, artikuluak eta haur- eta gazte-literatura landu ditu.


Haren lehen liburua *Hunik arrats artean* izan zen, 1970ean, eta hortik aurrera ekoizpenak idazten jarraitu zuen. Liburuak idazteaz gain, kazetari gisa jardun zuen “Egin”, “Berria” edo “El País” komunikabideetan.



Zinearekin eta telebistarekin ere harremana izan zuen, eta *Hamaseigarrenean*, *aúdanez* eta *Karelétik* zuzendu zituen. Bere ibilbidean sari garrantzitsuak jaso zituen, hala nola Literatura Sari Nazionala eta Euskadi Saria, eta horrek nahiko ondo berresten du euskal kulturaren barruan duen garrantzia.



IBILBIDE LITERARIOA



Anjel Lertxundi-ren ibilbide literarioa oso luzea eta aberatsa izan da eta horregatik gaur egun euskal literaturako idazle garrantzitsuenetako bat dela esaten da. 1970ean argitaratu zuen bere lehen liburua, *Hunik arrats artean*, ipuin bilduma bat, eta ordutik aurrera etengabe jarraitu du idazten.

Hasieratik ikusi zen genero bakar batean geratu nahi ez zuen idazlea zela, eta urteetan zehar eleberriak, ipuinak, saiakerak, haur eta gazte literatura, itzulpenak eta prentsako artikulua idatzi ditu. Bere lanetan beti nabaritzen da hizkuntza zainduaren erabilera, hitzekiko arreta handia eta estilo propio bat eraikitzeko nahia. Horregatik, bere idazteko modua erraz bereizten da beste egile batzuegandik. Eleberriaren alorrean idatzi ditu bere lan ezagunen artean daude *Hamaseigarrenean, aïdanez; Otto Pette; Argizariaren egunak* eta *Zorion perfektua*.



Obra horietan askotan pertsonaien barruko mundua lantzen du: sentimenduak, oroitzapenak, zalantzak edo giza harremanetako tentsioak. Bere kontakizunek normalean giro sakona dute, baina aldi berean irakurlearengana hurbiltzeko modukoak dira. *Hamaseigarrenean, aïdanez* eleberria bereziki garrantzitsua izan zen, gero pelikula bihurtu zelako eta berak zuzendu zuelako.



Saiakeraren alorrean ere lan handia egin du, batez ere eguneroko bizitzari, hizkuntzari eta idazketari buruzko gogoetak eginez. Horren adibide argia da *Eskarmentuaren paperak*, non esperientziatik abiatuta hausnarketa pertsonalak egiten dituen. Gainera, kazetaritzan ere urte askotan aritu da, hainbat egunkaritan artikulatuak idatziz, eta horrek bere estiloa irakurle askorengana zabaldu du.

Bere lan guztiagatik sari garrantzitsu ugari jaso ditu. Bi aldiz irabazi du Kritikaren Saria: lehenengoa *Hamaseigarrenean, aïdanez* lanarekin eta bigarrena *Kapitain Frakasa* lanarekin. 1999an Euskadi Literatura Saria jaso zuen *Argizariaren egunak* liburuagatik, eta 2010ean Literatura Sari Nazionala irabazi zuen *Eskarmentuaren paperak* saiakerarekin. Horrek erakusten du bere ibilbidea luzea izateaz gain, kalitate handikoa eta euskal literaturan oso eragin handikoa izan dela.


Hamaseigarrenean, aidanez

Liburuak garaiko euskal herri txiki batean izandako tragedia bat kontatzen du, non apustulari baten heriotzak eragin handia izan duen komunitate osoan. Testuak iraganeko oroitzapenak, beldurrak eta hainbat pertsonen ahotsak batzen ditu gertakariari buruz, ikuspegi anitzetik.

Egileak azaltzen du egia eta oroitzapena kontzeptu subjektiboak direla, eta herriko biztanleen

memoriaren bidez eraikitzen eta aldatzen direla. Gertaera bera ikusteko modu desberdinek erakusten dute ez dagoela egia absoluturik.

Hamaseigarrenean, aidanez euskal literaturaren klasikoetako bat da eta pertsonaien barne sentimenduak eta komunitatearen oroitzapenak batzen ditu. Lertxundiren estiloak eta narratiba anitzek testua indartsu eta interesgarria bihurtzen dute, irakurleari hausnarketa sortzen dion eta emozionalki konektatzen den istorio bat eskainiz.



“EZ NUEN LEIHORIK IREKI behar izan gertatuko zitzaidana ezagutzeko. Etxeko atearen danbatekoak esnatu ninduenean jakin nuen jazoko zitzaidana. Begiak ireki, eta gelako aulki bakarra senarraren arroparik gabe ikusi nuen unetik. Kolpe batean irentsitako etsipena. Hala ere, ez nituen xehetasunak zehatz ezagutu leihorantz joan, pertsianaren gibelean aire bizi eta eraginkorra apirileko goiz ilun euritsuan usaindu, eta haize-boladak leihoaren oinarriak astindu zituen arte.

—Martzelina, ustekabean gertatu da! Edo:

—Ez dugu ezer egiterik izan.

Hala esango zidaten atea irekitzen nienean. Eta hainbeste urtetan beldurra izan nion espantu harrapagaitza sartuko zitzaidan etxera. Esango zizkidatenak eta isilduko zitzaizkidanak hausnartu nituen, haurtzaroko oroitzapen maiteenen gardentasun beraz ikusi eta usaindu bainuen zortzi bat ordu barru etxeratu behar zitzaidana.

—Dios, iritsi da! —pentsatu nuen, eta baita ozenki esan ere, horrela eginak indartuko banindu bezala.”

Testu honek pertsona baten aurreikuspena, beldurra eta tragediaren aurrean duen erreakzio psikologikoa azaltzen du. Eleberriak herri giroko tragedia bat kontatzen du emakume baten ikuspegitik, eta pasarte honek hasiera

emozional eta psikologikoa azaltzen du.


Egileak azaltzen du protagonistetako batek albiste txarren aurrean aurrez jakin dezakeela zer gertatuko den, baina beldur eta onarpen uneetan ez dagoelako egoerari aurre egiteko prest. Pasartean, narratzaileak dio ez zuela leiho bat ireki behar izan gertatuko zena jakiteko, bere barne-sentsazio eta beldurrak nahikoak izan zirelako. Zentzumen guztiak alerta egoeran zituen, eta iraganeko seinaleak antzematen zituen. Azkenik, etxera sartzen zaizkion bisitariak zer esan behar dioten pentsatzen du, beldurrak eta etsipenak tartean.

Egileak hizkuntza landu eta narratibo ederra erabiltzen du. Esaldiak koherente eta jarraituak dira, eta irakurlearen arreta emozio eta tentsioak nola hazten diren jasotzen dute. Hizkuntza ironikoa eta sakona da, protagonistaren barne-gogoetak eta beldurra modu eraginkorrean adierazten dituena.

Testuak indar handia du bi arrazoirengatik: alde batetik, protagonista seinale emozionalak antzematen saiatzen da, eta bestetik, beldur eta onarpen arteko unea agerian uzten du. Irakurketa honek irakurleari pentsarazten dio nola erreakzionatzen dugun albiste txarren aurrean, eta nola burmuinak “aurreikusitako” ditzakeen gertakari txarrak. Horrez gain, Lertxundiren estilo narratibo sendoak eta xehetasun psikologikoek pasartearen eragin emozionala handitzen dute.

JOAN MARI IRIGOIEN

(ALTZA, GIPUZKOA, 1948)



Joan Mari Irigoien Aranberri Altzan (Donostia) jaio zen 1948ko irailaren 30ean eta euskal letretako idazle emankorrenetako bat izan da.

Bere formakuntza akademikoa letretatik urrun hasi zen, Industria Ingeniaritza ikasketak burutu baitzituen Nafarroako Unibertsitatean, nahiz eta inoiz ez zuen lanbide horretan jardun. Gaztetan, kirolerako zaletasuna ere erakutsi zuen, Errealaren bigarren taldean futboleko jokatzera iritsi zelarik.

Bere bizitzako eta ibilbide literarioko mugarri nagusietako bat Venezuelara egin zuen bidaia izan zen; han pare bat urtez "erdimisiolari" gisa aritu zen.



Esperientzia horrek Hego Amerikako literatura eta errealismo magikoa (Juan Rulfo, García Márquez, Vargas Llosa edo Mario Benedetti bezalako idazleen eskutik) sakon ezagutzeko aukera eman zion, eta eragin hori nabarmena izan zen bere lehen obretan. Euskal Herrira itzultitakoan,

bere bizitza profesionala euskarari lotuta egon zen beti: irakasle lanetan aritu zen, Egin egunkarian zuzentzaile, eta telebistarako testu itzultzaile nahiz moldatzaile gisa.

Bere bizitzaren azken fasea gaixotasunak markatu zuen. Hogeita lau urtez Elkar argitaletxean idazle profesional gisa aritu ondoren, 2013an erretiroa hartu behar izan zuen alboko esklerosi primarioa (ELA) diagnostikatu ziotelako. Gaitzak hitz egiteko eta mugitzeko zailtasunak eragin zizkion arren, poesian lanean jarraitu zuen. Azken urteetan, eutanasiaren eta heriotza duinaren defendatzaile sutsua bihurtu zen, bere “Amodiozko gutuna” poeman "Eutanaxi" izen afektiboa eman zion. 2023ko maiatzaren 17an hil zen Donostian, bere bizitzaren eta heriotzaren jabe izateko borrokari amaiera emanda.

IBILBIDE LITERARIOA

Irigoieneren karrera literarioa *Oñarraren promesa* (1973) eleberriarekin abiatu zen, frankismoaren errepresioaren aurkako alegia mardul bat. Handik aurrera, unibertso literario zabalak sortzeko gaitasun ederra erakutsi zuen, lau aldiz irabazi zuen Espainiako Kritika Saria. Bere obra nagusien artean *Poliedroaren fustoak* (1982) nabarmentzen da, karlistaldietan girotutako familia-saga konplexua; baita *Udazkenaren balakoiatik* (1987) ere, non bere jaioterriaren degradazioa eta "zementuaren terrorismoa" salatu zituen. Halaber, *Babilonia* (1989) eleberririk arrakasta handia lortu zuen, baserri giroko anai arteko drama eta euskal mitologia (Mari Jainkosa kasu) modu magistralean uztartu zituen.

Babilonia (1989)

Eleberririk hau Irigoienaren arrakasta handienetakoa da eta baserri giroko anai arteko drama bat kontatzen du.

Argumentua: Babilonia izeneko baserrian jaiotako bi anaia bikiren, Trínido eta Felicianoren, arteko gorroto eta liskar fratrizida da ardatza. Jaiotzetik elkar gorrotatzen dute, emakume beraren (Margari) maitasunagatik borrokatzen dira eta heldutasunean aurkako bando politikoetan (karlista bat eta liberala bestea) egiten dute gerra. Tragedia hirugarren



anaiaren, Casianoren, erailketarekin amaitzen da.

Egitura eta Narratzaileak: Lan hau hiru plano narratibotan antolatuta dago, eta bakoitzak bere narratzailea eta euskalkia ditu: narratzaile orojakilea (bizkaieraz), Mari jaïnkoa (nafarrez) eta Casiano anaia lekukoa (gipuzkeraz).


Esanahia: Obrak munduaren ikuspegi magiko eta mitikoa eskaintzen du, biblia-erreferentziak eta antropologia nahastuz. Gerra Zibilaren metafora gisa ere irakur daiteke, anaien arteko borrokek gizartearen zatiketa islatzen baitu.

Lur bat haratago (2000)

Hau da Irigoienek idatzitako obrarik luzeena (650 orrialde baino gehiago) eta prestakuntza gehien eskatu ziona.

Argumentua: XVII. mendeko Nafarroan kokatzen da, Urbiain izeneko fikziozko herrian. Protagonista, Joanes Etxegoien, bi munduren arteko gatazkan bizi da: arbasoen heroitasunaren eta gurasoen pragmatismoaren artean;

zientziaren eta erlijioaren artean; eta katolikoaren eta protestantearen artean.



Estiloa eta Hizkuntza: Idazleak Axularren prosa eta XVII. mendeko erregistroak berreskuratu nahi izan zituen, esaldi "arnas luzekoak" eta egitura konplexuak erabiliz. Kritikariak "filologizazio" ariketa mardultzat jo dute lan hau.

Mezua: Funtsean, askatasunari eta tolerantziari eginiko kantu bat da. Axularrek bere pentsamendua ortodoxiatik landu zuen bezala, Irigoienek heterodoxiatik bideratu zuen Joanesen bilakaera espirituala eta intelektuala.



Amodiozko gutuna

Printzesa urrun baten izena duzu,
Eutanasia,
baina nik hurbilago nahi zintuzket,
maite-maite baitzaitut,
eta ez baitut burutik baztertzen zu neure egitea noizbait,
edo ni zeure, hobeki...

Zu, Eutanasia, ene azken orduko esperantza;
zu, ene azken hatsa;
zu, ene Buda errukibera;
zu, ene balizko sufrimenduen aringarri;
zu, ene maitaleen maitale.

Barkatu atrebentzia,
hurrengoan Eutanaxi deitzen badizut...

Joan Mari Irigoien

Joan Mari Irigoienen “Amodiozko gutuna” poemak eutanasiari buruzko hausnarketa intimoa egiten du, heriotza ohiko beldurretik aldenduz eta desiragarri gisa aurkeztuz, lehen bertsoan “printzesa urrun baten izena duzu” esatean eutanasia zer bait eder baina urrun gisa irudikatzen da, eta “baina nik hurbilago nahi zintuzket” eta “maite-maite baitzaitut” lerroetan ahots poetikoak harekin harreman afektiboa sortu nahi duela erakusten du, horrela hasten da pertsonifikazioa, eutanasia maitale edo pertsona balitz bezala tratatzen baita, “ez baitut burutik baztertzen zu neure egitea noizbait, edo ni zeure, hobeki” esaldietan batasun nahia agertzen da, eta “zu, Eutanasia, ene azken orduko esperantza”, “ene azken hatsa” eta “Buda errukibera” bezalako bertsoetan, sufrimendutik askatzen duen figura errukitsu gisa aurkezten da, azkenik, “Eutanaxi” hitz-jokoak tonua samurtzen du eta pertsonifikazioa indartzen du.

Joan Mari Irigoienen lanetan oso ohikoa da gai existentzialak lantzea, bereziki bizitzaren zentzua, heriotza eta gizakiaren barne gatazkak, eta “Amodiozko gutuna” poeman ikus daitekeen bezala, ez du heriotza modu hotz edo tragikoan bakarrik aurkezten, baizik eta ikuspegi gizatiar eta errukitsu batetik, horrek lotura dauka bere ibilbide pertsonal eta literarioarekin, izan ere, bere idazkietan askotan agertzen da sufrimenduarekiko kezka eta azken momentuen inguruko gogoeta sakona, eta horregatik ulertzen da hemen eutanasia askapen edo bake moduko bat bezala agertzea, bere pentsamendu existentzialaren barruan kokatzen den ikuspegi bat baita.

BERNARDO ATXAGA

(ASTEASU, GIPUZKOA, 1951)



Joseba Irazu Garmendia, Bernardo Atxaga ezizenarekin ezaguna, idazle asteasuarra da. 1951ko uztailaren 27 jaio zen eta gaur egun bizirik dago.

Txikitatik idazten zuen etxean zuten irakurzaletasunak bultzatuta. Maitasun hori gurasoek oparitutako liburuek eragin zuten, hala nola, Charles Dickensen *Pickwick Klubeko paper postumoek*, eta Atxagak Asteasuko lagunekin batera irakurtzen zituen tebeo eta entziklopediek. Hain zuzen ere, bere azal gogorreko lehen koadernoan idatzi zuen egileak, 13 urte zituela, bere lehen poema:

"Tienes los ojos del color del onix, y tu pelo es como el de una morena de Guadix".



Aipagarria da historian gehien irakurri eta itzuli den euskarazko idazlea dela. Horregatik, euskarazko idazle garrantzitsuenetako bat da. Ikasketei dagokienez, Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatean, eta Filosofia eta Letretan Bartzelonakoan, baina laster erabaki



zuen idazteari ekitea seriotasunez.


Bere bizitzan zehar aitoren ugari jaso ditu eta gaur egun Euskaltzaindiko kidea da 2006tik, eta 2010eko azaroan Jakiunde

Akademiako Zientzia, Arte eta Letren kide ere izendatu zuten.



IBILBIDE LITERARIOA

Ibilbide literarioari dagokionez, poesia, antzerkia, haur literatura, ipuina eta eleberria bezalako genero oso ezberdinak landu ditu, eta hizkuntza askotara itzuli da. *Ziutateak* (1976) eta *Etiópia* (1978) lanekin egin zen ezagun poeta gisa, eta Kritikaren Saria eman zioten. Ordutik, euskarazko literaturaren erreferentziazko ahots bihurtu da.



Bere narrazio lanen artean, nabarmentzekoa da *Obabakoak* (1988) kontakizun liburua, nazioartean proiektatu eta sari ugari eman zizkion mundu mitikoa eraikitzen duena.



1972an, Atxagaren euskarazko lehen testua argitaratu zen, *Borobilā eta puntua* antzerki lana, kutsu experimental argikoa. Aresti poeta bilbotarra izango da gutun pertsonal batean testuagatik zorionduko duena eta idazten jarraitzera animatuko duena, euskal idazle gisa izango duen etorkizun handia aurreratuz.

Ekonomiako karrera 1973an amaitu ondoren, Atxaga derrigorrezko soldadutza egitera joan zen, eta bizipen hori benetako desagertze ad inferos bihurtuko da. Esperientzia hori urte batzuk geroago islatu zuen egileak bere eleberri esperimentalean: *Ziutateaz* (1976). Bere poemek, hala nola *Crónica parcial de los 70* izenekoak (*Poemas & Híbridos*, 1990 poema-liburuan jaso), urte haietan bizi zen errepresio frankista izugarriaren oihartzunak bilduko dituzte.

Frankismoaren amaieran, Atxaga euskal testuinguru kultural oso mugatu eta ia klandestinoan hezi zen, euskarazko literatura garatzeko aukera gutxiarekin. Soldadutza egin ondoren,

Donostiako banku batean hasi zen lanean eta, Koldo Izagirrerekin batera, 1975ean “Ustela” aldizkaria sortu zuen, abangoardista eta literaturaren autonomian oinarritua.


70eko hamarkadaren amaieran, Bilbora joan zen, eta zailtasun ekonomikoak izan zituen, hainbat lan egiten zituen bitartean. Hala ere, etapa hau oso emankorra izan zen literaturari dagokionez, beste sortzaile eta talde kultural batzuekin harremanetan jarri baitzen, hala nola antzerki-taldeekin eta ilustratzaileekin, proiektu berritzaileetan kolaboratzeaz gain.



Testuinguru horretan, “Pott” (1978 – 1983) literatur bandako kide izan zen, Joseba Sarrionandia, Ruper Ordorika, Joxemari Iturralde eta Jon Juaristi egileekin batera. Talde honek interes politiko edo ideologikoetatik independentea zen literatura defendatzen zuen eta korronte europar eta anglosaxoien eragina zuen. Bere proposamenak berrikuntza garrantzitsua ekarri zuen euskal literaturan.




Obabakoak



Obabakoak euskaraz idatzitako lanik ezagunenetako bat da nazioartean, izan ere, hogei hitzkuntza baino gehiagoetara itzuli da eta euskal literatura mundu mailan ezagutarazteko funtsezko lana izan da. 1988an argitaratu zuen Bernardo Atxagak, eta urtebete geroago Espainiako Narratiba Sari Nazionala jaso zuen, sari hori lortzen duen lehen euskal idazlea

bihurtu zen. Obaban kokatutako ipuin bilduma da, non gauza errealak eta magikoak nahasten diren, gainera, beste liburu batzuen aipamenak ere agertzen dira.

Egiturari dagokionez, liburua egitura markoduneko ipuin antolatuta dago; hau da, istorio nagusi baten barruan beste istorio batzuk kontatzen dira. Ipuinak independenteak izan arren, guztiak lotura bat dute eta Obaba izeneko herri fikziozkoa da elementu bateratzailea. Ondorioz, ipuin bilduma bat izan arren, eleberri izaera ere badu.




Horregatik, laneko elementu esanguratsuenetakoa bat Obaba herriaren izaera da. Obaba ez da pasarte bakar batean azaltzen, baizik eta liburuan zehar, ipuin desberdinen bidez, pixkanaka eraikitzen da. Liburu honetan, herria ez da leku erreal huts bat bezala aurkezten, baizik eta errealitatearen eta irudimenaren arteko espazio moduan. Zati horretan, irakurleak erakusten du Obaba ez dela soilik kokapen geografiko bat, baizik



eta istorioak sortzeko eta transmititzeko leku sinbolikoa. Horrek aukera ematen dio egileari kontakizun desberdinak lotzeko eta narrazioaren barruan beste narrazio batzuk kontatzeko.





Gainera, liburu honek Atxagaren literaturaren ezaugarri nagusietako bat erakusten du: errealitatearen eta fikzioaren nahasketa. Elementu fantastikoak eta eguneroko bizitzako egoerak batera agertzen dira, eta horrek giro berezi eta originala sortzen du. Bestalde, lan honen garrantzia ez dago bakarrik kontatzen duen istorioan, baizik eta nola kontatzen duen ere esanguratsua da. Egileak hizkera erraza erabiltzen du, baina irakurlea pentsatzera eta imajinatzerara eramaten du, hau da, ez dizu zer pentsatu behar duzun esaten, baizik eta pentsaraztera gonbidatzen zaitu. Horregatik, irakurle bakoitzak bere modura ulertu dezake.

Azkenik, Obabaren izaeraren azalpena oso garrantzitsua da liburu osoa ulertzeko, izan ere, bertan agertzen da Atxagaren unibertso literarioaren oinarria: istorioek errealitatea eraikitzeke duten indarra.

OBABAKOAK-en ATAL BAT

—Eta zergatik ez zara Hamburgora joaten? Ez al da zure aita handik? —esan zuen Andresek. Hari xehetasunak axola zitzaizkion, baina ez agerpena bera, ezta hori posible ote zen ere. Aitzitik, gauza arrunta iruditzen zitzaion. Entzuna zuen maiteminduek modu askoz arraroagoetan komunikatzen zutela elkarrekin; adibidez, hontz bihurtuta. Beraz, arrazoiren bat egongo zen Maria Vockelek horrela egiteko.

Bere oroitzapenak une batez utzita, Esteban Werfellek leioa ireki eta parkera begiratu zuen. Zerua gero eta urdinago zegoen, eta azken bisitariak txakurrak paseatzen edo zisneei janaria botatzen ari ziren. Putzuaren beste aldean, hogeiren bat ume futboleak jolasten ari ziren.

«Nolanahi ere —pentsatu zuen, barandari helduta eta berriro oroitzapenetara itzulita—, Andres ez zen salbuespena. Obabako jendeak edozein gauza arraro oso erraz onartzen zuen. Nire aitak barre egiten zien».

Testu hau *Obabakoak*-eko bigarren atalekoa da, eta “Hans Mensher” ipuinean kokatzen da. Istorio honetan, narratzaileak bere gaztaroan bizitako esperientzia bat gogoratzen du, eta horren bidez Obaba nolakoa den erakusten du.

Zati honetan bi esaldi oso garrantzitsu agertzen dira. Alde batetik, “entzuna zuen maiteminduek modu askoz arraragoetan komunikatzen zutela elkarrekin; adibidez, hontz bihurtuta”, non erakusten da leku berdinean benetakoak eta magikoak diren gauzak elkartzen direla.

Bestetik, narratzaileak dionenan “Obabako jendeak edozein gauza arraro oso erraz onartzen zuen”. Esaldi honek zuzenean azaltzen du herriaren izaera, hau da, gauza arraroak edo magikoak normalak direla Obaban.

JOSEBA SARRIONANDIA

(IURRETA, BIZKAIA, 1958)



Joseba Sarrionandia euskal idazle, itzultzaile eta pentsalari ospetsua da. Filologia ikasketak egin zituen eta gaztetatik erakutsi zuen literaturarekiko zaletasuna.

Gaztetan Euskal Herriko giro politiko eta kulturalarekin lotu zen, eta horrek bide eman zion gazteen mugimenduetan parte hartzera. 1980an atxilotu zuten ETArekin lotura izatea egotzita, eta espetxean egon zen hainbat urtez. 1985ean ihes egin zuen Martuteneko espetxetik modu ikusgarrian: kontzertu baten ondoren bozgorailu baten barruan ezkutatuta. Gertaera horrek oihartzun handia izan zuen.





Sarrionandia eta Pikabearen ihesaren berria, "Egin" egunkariaren azalean (1985).

“Kortatu” taldearen *Sarri*, *Sarri* abestia Joseba Sarrionandia-ren 1985an Martuteneko kartzelatik egindako ihesaldian oinarrituta dago, eta Josebaren “Sarri” ezizenari erreferentzia egiten dio. Abestia, gainera, “Toots and the Maytals”-en *Chatty Chatty* kantuarien moldaketa da, eta oso azkar bihurtu zen Euskal Herriko himno ezagun, benetako gertaera bat giro alaian kontatzeagatik.

Ihesaren ondoren, urte luzez

erbestean bizi izan zen, batez ere Kuban, eta handik jarraitu zuen idazten. Dena den, jendeak ez zekien non zegoen, eta horrek misterio handia sortu zuen bere inguruan, bai hedabideetan bai jendearengan. 2016an berriro agertu zen publikoki, eta 2021ean Euskal Herrira itzuli zen, pixkanaka bere egoera normalizatzen joan zen. Bere bizitza ia guztiz ezaguna da bere aurrekari politikoengatik eta ihes ospetsuagatik, beraz, idazle ezaguna da eta hamaika irakurle ditu.

IBILBIDE LITERARIOA

Josebaren ibilbide literarioa oparoa eta eragin handikoa izan da euskal literaturan. Hasieratik berrikuntzarako joera erakutsi zuen, eta bere lanek tradizioa, modernitatea, esperientzia pertsonalak, memoria eta identitatearen bilaketa uztartzen dituzte, baita gatazka eta erbestearekin lotutako gaien azterketa ere, eta hori guztia hizkuntza, forma eta esperimentazio berritzaileekin.

Joseba Sarrionandia literatur munduan sartu zen gaztetan, aldizkari eta argitalpenetan idatziz, hala nola “Pott”, “Zeruko Argia” eta “Jakín”-en. Bere lehen lan garrantzitsua *Izuen gordelekuetan barrena* (1981) poemarioa izan zen, eta bertan bere estilo berezia eta esperimentalak garatu zuen. Ondoren, poesia, narrazioa eta saiakera nahastuzko lanak idatzi zituen, eta horiek euskal literatura garaikidearen maisulan bihurtu dira.




Poesian, irudi indartsuak eta hizkuntza landua erabiltzen ditu, askotan tonu ironiko edo malenkoniatsua lagun. Narrazioetan, berriz, egitura ez-linealak eta kontakizun laburren bidezko esperimentazioa nabarmendu dira, Narrazioak bezalako lanetan ikus daitekeen bezala. Erbestean idatzitako obrek, *Isar aldeko orduak* edo *Lagun izoztua*, esaterako, sakon lantzen dute deserria, identitatearen galera eta memoria, ikuspegi pertsonal eta unibertsal batetik.



Gainera, saiakeretan, hala nola *Moroak gara behelaino artean?* lanean, kultura, hizkuntza eta politikaren inguruko gogoeta kritikoak egiten ditu, tonu ironiko eta zorrotz batekin. Bere obra ez da soilik originala eduki aldetik, baizik eta itzulpenak egitean ere ageri da bere garrantzia: T. S. Eliot, Fernando Pessoa eta bestelako idazle

handiak euskarara ekarri zituen, euskal irakurleek literatur mundu zabalagoa ezagutzeko aukera izan zezaten, eta horrek ere euskal literaturaren aberastasunean lagundu du.



Lau bost sei harresi

Lau, bost, sei harresi gure inguruan
bihotz bat bestearen barruan bezala.
Euriak zorionari eragindako kantua
laku zaharren batean ito zen,
haizeak ez dakar ezer. Begiratu hegaztien
itzal atzeman ezinak lurrean.
Zer egin dezakegu? Paseatu, urrats
bakoitzean errauts apur bat utziz;
mundua ere geure antzera biratzen da
bere buruaren giltza aurkitu ezinik.

Joseba Sarrionandia

Poema hau Joseba Sarrionandia-rena da, eta barne munduaren konplexutasuna, itxiera eta existentziaren zentzuaren bilaketa lantzen ditu. Hasierako “lau, bost, sei harresi gure inguruan” esaldiak pertsonen barruko muga eta babes-geruzei egiten die erreferentzia, “bihotz bat bestearen barruan bezala” irudiak, berriz, norberaren sakontasuna eta sentimenduen pilaketa adierazten ditu. Ondoren, euriak zoriontasunaren kantua laku zahar batean ito duela esateak iraganeko pozaren galera simbolizatzen du, oroitzapenetan hondoratuta geratu den zerbait balitz bezala. Haizeak ezer ez ekartzeak geldialdia eta hutsunea azpimarratzen ditu, aldaketarik eza.

Bestalde, hegaztien itzal atzeman ezinek askatasunaren irudia dakarte, baina aldi berean iradokitzen dute askatasun hori ezin dela benetan eskuratu. “Zer egin dezakegu?” galderak ezinegona eta ziurgabetasuna agerian uzten ditu, eta erantzunak “paseatzea, urrats bakoitzean errauts apur bat utzi”, bizitzaren higadura adierazten du, pixkanaka geure burua galtzen dugula erakutsiz. Azkenik, mundua bera ere gizakiaren pare jartzen da: etengabe biraka, baina bere buruaren giltza aurkitu ezinik. Horrela, poemak ikuspegi existentzialista eta malenkoniatsua eskaintzen du, gizakiaren bakardadea eta zentzu faltaren sentipena nabarmenduz.

Poema honek lotura estua du Joseba Sarrionandia-ren bizitzarekin. “Harresiak” kartzela eta barneko mugak irudikatzen dituzte, eta askatasunaren ezintasuna (hegaztien itzalak) bere egoerarekin lotzen da. Gainera, zorientasunaren galera eta hutsunea erbestearekin eta bakardadearekin erlazionatzen dira. Bere lanetan ohikoa den bezala, poemak galdera existentzialak planteatzen ditu, erantzun argirik eman gabe.